

IKASTETXEA	ALAITZ B.H.I.		
IZENBURUA	3.500 LANGABE GEHIAGO URRIAN	MAILA	DBH 1
IRAKASLEAK	LOURDES ETA ZIORTZA	IKASGAIA	MATEMATIKA

DBHrako Irakurketaren Ulermenerako Hobekuntza Plana.

IKASTAROAREN LANA


16 // berria // 2009ko azaroaren 4a, asteazkena

Harian » **Ekonomia**

3.500 langabe gehiago urrian

↓ **Langabezia INEMen arabera**

Hego Euskal Herria



ITURRIA: INEM

Herrialdeka

○ Iraila ● Urria

ARABA
Tasa %12,20
↑ 370
Langabe gehiago
○ 18.708
● 19.078

BIZKAIA
Tasa %12,72
↑ 1.337
Langabe gehiago
○ 67.487
● 68.826

GIPUZKOA
Tasa %10,83
↑ 486
Langabe gehiago
○ 37.199
● 37.685

NAFARROA
Tasa %12,56
↑ 1.384
Langabe gehiago
○ 37.353
● 38.737

Aldea

2008ko urria-
2009ko urria



tik batek 25 urte baino gutxiago ditu.

4. Atzerritarrak

Atzerritarrak Hego Euskal Herriko langabeen %12 dira. Langabe atzerritarren kopurua %63 handituta urtebetean: iazko urrian 12.607 ziren, eta aurtengo urrian 20.589.

Urtebetean bikoiztu egin da atzerritar langabeen kopurua zerbitzuetan, industrian eta nekazaritzan. Eraikuntzan hazkundera %55 izan da.

5. Gizarte Segurantza

Urrian batez beste 1.207.781 langileegon dira izena emanda Gizarte Segurantzaren Hego Euskal Herrian, irailean baino 6.690 gehiago (%0,5) eta iazko urrian baino 43.781 gutxiago (%3,5).

Hego Euskal Herrian langabezia %2,22 igo da irailetik urrira eta %42 urtebetean, INEMek emandako datuen arabera

Langabe gehienak zerbitzu sektorekoak dira, baina industrian handitu da gehien

Jakes Goikoetxea Donostia

Langabeziak ez du etenik. Iazko urritik aurtengora, ia 50.000 lagun gehiagok eman dute izena Espainiako Enplegu Institutuan (INEM). Hazkundera %42koa da, eta INEMek zerrendatutako langabeak 164.326 dira. Irailetik urrira 3.500 langabe gehiago daude, %2,22 gehiago.

Langabezia probintzia guztietan handitu da. Hazkundera handiena Nafarroan izan du: %3,70.

Irailetik urrira langabezia gutxitu egin zen bertan, oso gutxigatik izan bazen ere.

Langabeziak hazkundera ikusgarria izan zuen iazko urtearen amaieran eta aurtengoren hasieran. Orain gora egiten jarraitzen du, baina ez duela urtebeteko proportzioan. Hala ere %40tik gora hazi da probintzia guztietan.

1. Sexua

Hego Euskal Herrian INEMen bu-

legoetan izena emanda daudenen sexua aintzat hartuz gero, probintzia guztietan gehiago dira emakumeak gizonak baino, baina aldea ez da handia. Langabezian dauden emakumeak langabeen %51 inguru dira, bai Hego Euskal Herrian, bai probintzietan.

Duela urtebeteko datuekin alderatuz gero, INEMen zerrendetan daudenen artean gizonen proportzioa asko handitu dela ikus daiteke. Iazko urrian emakumeak %57 ziren Araban eta Gipuzkoan, eta %54 Bizkaian eta Nafarroan.

Iazko urritik aurtengora ia 50.000 langabe gehiago daude INEMen arabera. Bost langabe berriak hiru gizonak dira eta bi emakumeak.

2. Sektorea

Langabe kopuru handiena zerbi-

tzuen sektorean dago probintzia guztietan: %64 Araban, %62 Bizkaian, %61 Gipuzkoan eta %57 Nafarroan. Hala ere, iaztik langabezia gutxien hazi den sektorea da: %35. Gainerako sektoreetan langabeziaren hazkundera %50etik gorakoa izan da: %59 industrian, %57 eraikuntzan eta %54 nekazaritzan.

Irailetik urrira langabezia murriztu egin da industrian Araban eta Gipuzkoan. Hala ere, Eustatek emandako datuen arabera, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako industriak iaz baino %20 gutxiago produzitu zuen irailean.

Langabeen %5ek ez zuten lanik INEMen izena eman aurretik.

3. Adina

Hego Euskal Herrian INEMen izena emanda duten hamar lagune-

Egilea: Jakes Goikoetxea
Iturria: Berria egunkaria

JATORRIA	
EGILEA	JAKES GOIKOETXEA
IZENBURUA	3.500 LANGABE GEHIAGO URRIAN
ARGITALETXEA/Webgunea	Berria egunkaria
URTEA	2009ko azaroaren 4a
ORRIALDEA (K)	16
ISBN	
TESTU-MOTA	
OINARRIA	INPRIMAKIAN EDO PAPEREAN
FORMATOA	MISTOA
MOTA	13. AZALPENA
ERABILERA	PUBLIKOA

ESTRATEGIAK

IRAKURRI BAINO LEHEN

1. IRAKURKETAREN HELBURUA:

- Langabeziaren garapenaren informazioa izatea.
- Irakaslearen helburua: ikasleak grafikoak interpretatzen ikastea eta grafiko arteko harremanak ere ulertzea

2. AURRETIKO EZAGUPENEN AKTIBAZIOA: Grafikoa interpretatu, dituzten aurretiko ezagupenak aktibatze

- #### **3. AURREIKUSPENAK EGITEA:** Testuari begirada bat emanda, sexuak, inplikaturiko sektoreak, adinak eta atzerritarra izateak, langabezi mailan eragiten duten faktoreak diren beraien ustez.

OHARRAK

IRAKURRI BITARTEAN

LEHEN IRAKURKETA BATEAN:

- 1- Lehenengo irakurketa batean, ulertzen ez dituzten hitzak azpimarratuko dituzte (tasa, aldea, %, hazkundera, gizarte segurantz, INEM, murriztu). Gero, komunean jartzeko arbelean idatziko ditugu eta irakasleak horien inguruko azalpenak emango dizkie guztiei batera.
- 2- Grafikoan zein informazio ematen diguten idatzi (aurreko urteko urritik aurtengo urrira langabezia kopuruaren eboluzioa)

BIGARREN IRAKURKETA BATEAN: testua irakurri eta zenbait esaldi landu:

- Bost langabe berritik hiru gizonak dira eta bi emakumeak.
- Hamar lagunetik batek 25 urte baino gutxiago ditu.

LABURBILTZE PARTZIALAK EGIN LANGABEZIAN ERAGINA DUTEN FAKTORE BAKOITZA BERE ALDETIK LANDUZ

- **Sexua:** Emakume gehiago daude lan gabe, gizonak baino. Hala ere, gaur egun dagoen langabeziak gehiago eragiten du gizonetan.
- **Sektorea:** langabezi gehien zerbitzuetan dago, baina gaur egun dagoen langabeziak beste sektore guztietan gehiago eragiten du. Hala ere, industri sektorean langabezia jaitsi egin da azken hilabeteetan.
- **Adina:** langabetuen 10etik 1ek, 25 urte baino gutxiago ditu.
- **Atzerritarrak:** langabeen %12 atzerritarra da, eta atzerritar langabeen kopurua %55 hazi da industrian eta gainerako sektoreetan bikoiztu.

OHARRAK

IRAKURRI ONDOREN

1. **INFERENTZIAK EGITEA:** langabeziak eskualde bakoitzean izan duen garapena identifikatzea, hau da, ikustea langabe tasa handiena, irailetik urrira langabe kopurua non handitu den gehien.
2. **AURREIKUSPENAK EGIAZTATZEA:** ikaslearen aurreikuspenak (langabeen kopuruan eragiten duten faktoreen inguruan) bete diren ala ez eztabaidatzea.

OHARRAK